

ERAGINKORTASUN ENERGETIKORAKO ETA ZAURKORTASUN
ENERGETIKOARI AURRE EGITEKO PROGRAMA

BALIABIDEEN KATALOGOA 2019

GIPUZKOA
argitu



Gipuzkoako
Foru Aldundia
Ingurumeneko eta Obra
Hidraulikoetako Departamentua



ORAIN
INGURUMENA

Katalogo honetan jasotzen diren ekintzak eta errekurtsuak eskuragarri daude
2019an Gipuzkoako Udalentzako aurretiaz eskatuta:
argitu@gipuzkoa.eus, 605757687 (9:00-15:00)



José Ignacio Asensio Bazterra

INGURUMEN ETA OBRA HIDRAULIKOETAKO FORU DIPUTATUA

Katalogo honetan jaso ditugu Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen eta Obra Hidraulikoetako Departamentuak GIPUZKOA ARGITU programaren baitan 2019an Gipuzkoako Udalei eskuragarri jartzen dizkien ekintzak eta errekurtsioak (aurretiaz eskatuta). Erabilgarriak izango zaizkizuela espero dugu, herritarren artean energia-kultura hedatzeko aukera paregabea dira eta.

HERRITARRENTZAKO TAILERRAK

1 Eskuratu zure argindar kontsumoaren datuak eta murriztu zure kontsumoa!

TAILERRAREN IRAUPENA: 1H 30'
ARETOAN BEHAR DIRENAK: ORDENAGAILUAK
(HAUTAZKOA), PROIEKTOREA ETA PANTAILA

Jakin badakigu kontsumo datuak ezagutzea (zenbat kontsumitu dugun edo noiz izan dugun kontsumo mailarik altuena) ezinbestekoa dela kontsumo hori murrizteko, aplikatzen zaigun tarifa egokitzeko eta kontratatuta dugun potentzia egokia ote den egiaztatzeko.

Iberdrola Distribución Eléctrica S.A. enpresak ia osorik hornitzen du Gipuzkoa eta, beraz, lurralde ia osoaren kontsumoa kontabilizatzen du. Zure kontsumo datuak enpresa horren web orrian ikus ditzakezu eta, horrela, argindarraren faktura murriztu eta optimizatu.

Tailer honetan herritarrei erakutsiko zaie hori nola egin, zehazki hiru gai hauek landuz:

1. Nola eskuratu norberaren argindar kontsumoaren datuak.
2. Nola murriztu kontsumoa eta nola aukeratu tarifarik egokiena.
3. Nola egiaztatu kontratatuta daukagun potentzia dela beneratzen behar duguna.

(2) **Etxean energia aurrez dezakezu erosotasunik galdu gabe!**

TAILERRAREN IRAUPENA: 1H 30'

ARETOAN BEHAR DIRENAK:
PROIEKTOREA ETA PANTAILA

Tailer honen helburua da gure etxeetan energia modu eraginkorrean erabiliz eta erosotasunik galdu gabe energia eta dirua aurrezteko gomendioak ezagutzera ematea herritarrei.

Denok erabiltzen dugu energia (argiterian, berokuntzan, sukaldetan...) gure egunerokotasunean, horregatik da guztiontzako interesgarria saio hau. Norberak bere etxean ezarri ditzakeen eraginkortasun neurrietarako beharrezko materialak erakutsiko dira eta energia aurrezteko balio duten ohitura aldaketak zein diren azalduko da. Parte hartzen dutenei, "Energia-aurrezkiari eta -eraginkortasunari buruko aholku praktikoaren gida" banatuko zaie. Gida honetan modu erraz eta ulergarrian azaltzen dira energia aurrezteko eta eraginkorrakoak izateko baliagarriak diren hainbat aholku.

(3) **BERRIA!** **Eraginkortasun altuko birgaitzea: zure etxerako baliagarria, dirua aurrezteko eta osasuna irabazteko.**

TAILERRAREN IRAUPENA: 1H 30'

ARETOAN BEHAR DIRENAK:
PROIEKTOREA ETA PANTAILA

Etxebizitza bat eraberritzerako garaian energia eraginkortasuna kontuan hartzen bada, etxe horretako biztanleen bizi-kalitatea hobetuko da arrazoi hauengatik:

- 1) Energia kontsumoa gutxituko da: isolamenduak, hermetikotasunak, aireztapen egokiak eta instalakuntza eraginkorrek energia aurrezteko dakarte eta, ondorioz, baita dirua aurrezteko ere.
- 2) Bertan bizi direnek osasunean irabaziko dute: hezetasunak kontrolatuko dira, kondentsazioak saihestuz eta ondorioz, patologia ekidinez.

Gu ziti hau lortzeko etxe bat birgaitzerako garaian izan beharrek ezaguera eta irizpideak modu erraz eta ulergarrian azalduko dira tailer honetan.

(4 BERRIA! Energia berriztagarriak zure etxean... posible da!

TAILERRAREN IRAUPENA: 1H 30'

ARETOAN BEHAR DIRENAK:
PROIEKTOREA ETA PANTAILA

Orain bai, jada legezkoa da edozein motatako energia berriztagarriak etxean ezartzea eta gainera ekonomikoki errentagarriak dira. Aldaketa klimatikoak gure egunerokotasunean gero eta eragin gehiago dituen ingurumarian, norberak bere etxean energia berriztagarriak sortzeko eta erabiltzeko aukerak bat baino gehiago dira eta desberdinak etxebizitzaren ezaugarrien arabera.

Tailer honetan mota desberdinetako etxebizitzetxei zein berriztagarri egokitzen zaien ikasteko aukera izango da, norberak bere etxerako bideragarriena zein den jakin dezan. Bizitza ugaridun etxeak (bai komunitate ikuspegitik eta bai bakarkako ikuspegitik), bakarkakoak eta merkataritza lokalak aztertuko dira, adibide erreal eta praktikoekin.

BALIABIDEAK ETA MATERIALAK

Gipuzkoa Argitu Tutorialak

Gipuzkoa Argitu tutorialetan norberak bere etxeko argindar kontsumoaren datuak nola ikusi azaltzen da eta behin datu horiek ezagututa, kontsumoa murrizteko eta eraginkorragoak izateko erabakiak hartzea errazagoa izango da. Hiru tutorial daude eskuragarri:

1. Nola eskuratu zure argindar kontsumoaren datuak.
2. Nola murriztu kontsumoa eta nola aukeratu tarifarik egokiena.
3. Nola egiaztatu kontratatuta daukazun potentzia dela beneratzen behar duzuna.

Oso erraza da: izan eskura azken faktura eta jarraitu tutorialerako azalpenak.

Energia-aurrezkiari eta -eraginkortasunari buruzko aholku praktikoaren gida

Gida praktikoa honetan zenbait aholku jasotzen dira, energia eta dirua aurreztuz, norberaren etxeko erosotasuna hobetzeko. Aholku batzuk ezagunak dira eta, ziur asko, dagoeneko herritarrek erabiltzen dituzte jada beren egunerokotasunean; dena den, orri-garri bat ez dago soberan. Beste batzuk berriz, hain ezagunak izan ez arren, oso baliagarriak dira, izan ere neurri txikiak hartuz edo ohiturak aldatuz, eraginkorragoak izan gaitezke.

Tutorialak ikusteko eta/edo gida deskargatzeko:

www.argitu.eus

Dudaren bat izanez gero edo gida paperean nahi izanez gero:

argitu@gipuzkoa.eus